

Bakarkako mozorro dotoreak

Talde txikietan ere
ateratzen dira ▶ 7



Azken mozorroak, apartak

DENETIK ▶ Santa Marian arkeologoak, Tolobista, Uzturreko Ama, Vespan, zirkoa, Errusiako armada, eskaleak... izan dira

IKUSMINA ▶ Eguraldia lagun, jendetza bildu zen berriro umorez eta kolorez beteriko karroza eta konpartsen desfilean ▶ 4-5



Jendetza. Nahiz eta Inauterietako azken eguna izan, eta eguraldia lagun, jende ugari bildu zen atzo eguerdian karroza eta konpartsen desfilea ikustera, batez ere Triangulon eta San Frantziskon. IRATXE ETXEBESTE



Dantzan. Balantxaka konpartsak dantzan eta aerobik egiten jarri zituen ingurukoak atzo goizean San Frantzisko kalean. LEIRE MONTES



Eskean. Eskale txiki hauek eskean aritu ziren atzo eta Zaldunitan Trianguloan. Zerbait aterako zuten. INIGO TERRADILLOS

MIGUEL GABARAIN ▶ INAUTERIZALEA

«Gauetz lehen baino jende gehiago ibiltzen da eta egunez, gutxiago; txarangekin jende gutxiago ikusten da»

Inauteriak ondo ezagutzen ditu aspaldidanik, barru-barrutik; txikitandik datorkio inauterizaletasuna ▶ 2



Miguel Gabarain. HITZA

BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO

Igandean lan egin zuen HITZAREN erredakzio taldeak Inauterietako informazioa jaso eta berri emateko eta gaur, asteazkena, aste-ko atseden eguna hartuko du. Horregatik bihar ez HITZARIK izango. Etzi izango duzue berriro eskuartean.



Gure Txokoa elkarteko koadrilaren Can can 1972an

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Musika eta dantza dira aurten 75. urtemuga —Txinparta elkartearekin batera— betetzen duen Gure Txokoa elkarterean ikurrak. Urte luze hauetan Inauterietan era askotara atera izan dira bertako bazkideak: karrozan, — 1929ko Arrantzaleak sekulakoa izan zen: bost karroza,

abesbatza, musika taldea...—, konpartsan —Inudeak eta Artzaiak 1931n eta 1980ean, Bony and Clyde 1973ean— abesten, dantzan... Argazki honetan Can can konpartsa ikus dezakegu. 1972ko Inauterietan ateratak. Musikiari baziren tartean eta ederki pasatu zuten dantzan. HITZA

MIGUEL GABARAIN ▶ INAUTERIZALEA

«Libre ibiltzea gustatzen zait, ordutegirik gabe, desfilerik gabe eta lehiaketarik gabe»

Joxemi Saizar. Inauterizale berteranoa da dakarguna gaur sail honi amaiera emateko, gauri desberdinetako jaiak ondo ezagututako, barru-barrutik. Jubilatzeke egun gutxi falta zaizkiola izan da HITZAREKIN. Lanetik erretiratuko da, ez Inauteri jaietatik.

Nolako Inauteriak bizitzen dituzu?

Bakarrak edo Otamendi lagunarekin ateratzen naiz beti. Txoroarena egiten libre ibiltzea gustatzen zait, ordutegirik gabe, desfilerik gabe eta lehiaketarik gabe. Nik beti ezagutu dudana Inauteria hori da.

Nola prestatzen zara?

Normalean hiru egunetan desberdin ateratzen naiz. Ez dira propio egindako jantziak. Etxean dagoena hartu eta kalera ateratzen naiz. Ez zait gustatzen mozorroa errepikatzea. Ezti saltzailearena bi aldiz atera dut, 1984an eta iaiz berriro. Azkenaldian ez dakit zer atera. **Lehen mozorroa gogoa al duzu?**

Bai, pintore bezala atera nintzen eta oroimen berezia dut. 1959an izan zen. Ja Accion Catolicatik bidali ninduten. Norbait aurrean jarri eta asto bat margotzen nuen. Bat haserretu egin zitzaidan eta jo nahi ninduen. Angel Sanchez algoazil andaluzak ia kalabozora eraman zuen, ganberroaren egiteagatik.

Zerekin izan duzu arrakastarik handiena?

Andaluzarena asko gustatu zen. Tolosa-Real Union futbol partiduan ohorezko sakea egin nuen. Etxeko esnezalea, San Blaseko Sasoeta baserriko Asun, klinikari zegoen. Bisitatzeraz joan nintzen, dantzan hasi nintzen eta ondoko ohean zuen emakume haurdunari keku eta min guztiak bukatu zitzaizkion: ohetik altxatu eta farez hasi zen. Mojek klinikatik bidali nahi ninduten, baina medikuak hiru egunetan bertan gelditzeke, horrela gaixo guztiak sendatuko zirela eta. **Besterik?**

Maitagarriarena ere oso ondo egin zen. Mairu bezala atera nintzenean Egiptotik ekarritako benetako txilaba atera nuen. Pitxiak saldu nituen Casinoren atarian. Indio bezala, seme-alabekin sei danbor hautsi genituen. Amianora joan behar izan genuen erostera.

Zer egiten duzu jendearengana iristeko?

Beti zerbait ematen diot: lore

TRAGO BATEAN ▶

Egunik onena? Astelenita, herrikoak bakarrik gaudelako. Eta Asteartita goiza.

Gaua ala eguna? Ez naiz gautxorria. Eguneke Inauteriak ezagutu dut beti.

Txaranga bat? Casinoko bazkide naiz eta Txapelaundirekin ibiltzen naiz.

Pieza bat? *Isabelita, Pello ziri ziri...* Denak

Zertan aldatu da Inauteria? Giroa eain.



HITZA

bat, *chupa chupsa*, ezta...Errazagoa da horrela jendearekin hitz egitea.

Nondik datorkizu inauterizaletasuna? Etxetik?

Ez, baina txikitandik gustatzen zait. Seme-alabek jarraitzen dute nire zaletasun hau.

Zertan aldatu dira Inauteriak?

Lehen baino jende gehiago ibiltzen da gauez eta egunez gutxiago. Txarangekin saltzen jende gutxiago ikusten da. Zezen-plazako kalejiran bakarrik. Giroa, berdin dago, ona ◀

DATUA ▶

25 urte dira *Fiestas de Primavera* mozorroa kendu zuela Inauteriak. 1943ean jarri zioten izen hori eta horri esker mantendu ziren bizirik. Beste leku batzuetan debekatu egon ziren eta galdu egin ziren. Tolosan ez. *Fiestas de Primavera* mozorroari esker 1980 arte. Neguan.

DATAK ▶



Polvo y Paja txaranga. J.SAIZAR

Ilargiarekin batera aldatzen dira Inauterietako datak urtero. Aste Santua ere bai. Tartean 40 eguneko Garizuma beti. Egutegi judutarrean Berpizkunde igandea martxoaren 20aren ondorengo ilargi beteari segitzen dion lehen igandea da. Data horri zazpi aste kenduta Zaldunita eguna ateratzen da. Hona hemen datozen urteetako Zaldunita egunak:

- 2006. Otsailak 26.
- 2007. Otsailak 18.
- 2008. Otsailak 3.
- 2009. Otsailak 22.
- 2010. Otsailak 14.
- 2011. Martxoak 6.
- 2012. Otsailak 19.
- 2013. Otsailak 10.
- 2014. Martxoak 2.
- 2015. Otsailak 15.
- 2016. Otsailak 7.
- 2017. Otsailak 27.
- 2018. Otsailak 11.
- 2019. Martxoak 3.

KANTAK ▶

'PASTELERO'
Artillero dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero.
Eta zeñekin? Eta norekin?
Orpo zikiñaren alabakin.

Orpo zikin, gona luze
atzeko-aldeko erregidore.
Jotzen zioten tarrapatatan,
zergatik neskatza zatarran zan.

Orpo zikin, gona luze
kaleko loiaren erregidore.
Deitzen zioten zarran zan zan
zergatik neskatza zatarran zan.

HERRIKOIA



BARRAKAK ▶

Haurren jostaleku

Haur eta gaztetxo asko erakarri ditu egunotan Geltoki aurreko barraka guneak; gaur, umearen eguna, txartelak erdi prezioan izango dira



Gaztetxo ugari erakartzen ditu beti auto-bokeen atrakzioak. Atzo goizean ere baziren batzuk. LEIRE MONTES

LEIRE MONTES
NOELIA LATABURU

Tiro pitxioa, arranoa, matxinsaltoa, auto-txokeak, zaldiko maldikoa, tonbola, zezen mekanikoak... Era guztietako jolasez gozatzeko aukera izan dute egun hauetan etxeko gaztetxoek. Aurten lehendabiziko aldiz Geltoki aurrean jarri dituzte barrakak eta ohi bezala bete dira egunero.

Atzokoan ere gaztetxo askok barraketara joatea nahiago izan zuten, karrozen eta konpartsen desfilea ikusi baino. Dena den, umeak barraken prezioarekin kezu ziren eta beste lekuetan merkeagoak dirrela aipatu zioten Hitzari.

Gaur izango dute diru guxtiagoren truke jolas gehiagotan aritzeko aukera; izan ere, Inauteriak amaitu diren arren, haur gehienek jai dutela aprobetxatuz, umearen eguna antolatuta dute aurten ere barraka gunean eta erdi prezioan izango dira txartelak.

INKESTA ▶ ZER FALTA ZAIE INAUTERIEI?

SOR BIRJINIA
TOLOSA



«Nire ustez ez zaie ezer ez falta; aitzitik, soberan ditu egunak. Aspaldi hiru egun izaten ziren, baina orain aste-raterako denak nekatuagoak gaude. Egunak kenduko nizkioke, beraz».

JOXPINIXI
TOLOSA



«Ez dut uste ezer falta zaienik, izan ere denetarik daukagu. Faltan baino zeozer soberan dagoela esango nuke, adibidez, mozorrotu gabe etortzen direnak».

MARGARI AGIRRE
ATAUN



«Inauteriak kon-pleto daudela deritot. Egun ba-koitza ezberdina da eta bere xar-ma du. Politena Asteartita da, herrikoentzat bereziki egina. Ez dut ezer ez faltan somatzen egun hauetan.».

IRATI MARITXALAR
TOLOSA



«Orokorrean dena oso ondo antolatuta dago eta denetarik izaten da, baina barraka gehiago eskatuko nituzke, eta merkeagoak gainera, izan ere, aurreko urtetik hona asko garestitu da».

ALAZNE SENPERENA
TOLOSA



«Gustura nago antolatzen diren ekintzekin, baina gustatuko litzaidake kontzertu gehiago izatea, eta talde eza-gunak izatea, ahal den neurrian behintzat».



Txikienek ere ederki asko pasatzen dute. I. TERRADILLOS



Sari bat lortu nahian aritzen dira gazte asko tiro pitxioan. INIGO TERRADILLOS



Inauterietako egitaraua
Inauterietako argazki bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,
gure web orrian azalduko dira
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

www.tolosaldeko hitza.info





KARROZAK ETA KONPARTSAK ▶



Inauterietako Tolo... bista

Tolosako Inauterietako gure azken kronika da hauxe. Izan ere, datorren urterako kazetari berriak ariko dira hemen lanean. Horixe espero dugu, behintzat



Villabona - Kultura

— ANTZERKIA —
PIKOR TALDEA
'ZAPALDU MARRA'
antzeziana

Ostailak 11 ostirala • gaueko 22:30ean
GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarean)

ERREDAKZIOA

Tolovision telebista kate berria sortu dutela ba al dakizue? Inauterietarako, propio Tolosaldeko egina eta bertan eskotua. Beldurri beldurriak jendearen artean pizten dutela, hainbat eta hainbat erreportari eta kazetari biltzen baita egunotan herriko kale baterretan. Horren harira, zera pentsatu dugu Hirra kook: datorren urterako gure ordez lanetan aritzeko aukera eman-ngo diegula hain guztiei, eta, hartara, jai egiteko parada izango duguk. Aurtengoa ez da zilegi izan, ordea, eta, beraz, aurreko egunetan bezalaxe, atzokoak guk gure konturatu dituzte.

Kontua da Santa Maria parrokiako karnabalek eztabaida sortu dutela bertan. Hain hotsak ez omen diete bizilagunei lorik egiten uzten, ez eta bertan indusiatik egiten ari ziren arteologoi lana egiten ere. Tiltan-eko arteologia eskolako ikertzaileak kezku ziren, behintzat. Ezkizuekin ez, baina gimnasti-

ka egiteko musika egokiarekin gustura zebiltzan Balantakakoak. Eta balantakak zebiltzanak, San Frantzisko ozeanoko uretan agertu ziren itsasontziak. Urturreko Anaren golidian, armatzaileek harraquin- toakoak salzten ziharduten, behan, kalean, sardimerak, sardimerak freskoak.

Barkuaren lekuan, motorra aukeratu zuten beste batzuek. Esanak hala dio: Vespa duenak neska duela. Eta horiek, nola ez, ondo zebiltzan atzetalden neska bana zutela. Bakar- rren bati hantzi egin zitzaion neska, ordea, hantzia geratu. Putz eta putz jardun arren, ez zuten berreskuratzetik lortu. Ez ote da modu berean, muti edo- rren bat lortzeko biderik?

Mutilak, neskek edo zer arriato ziren ez dakigu, baina oso ondo dantatzen zutela bai. Zeltiar musika oinarri har- tuta, koreografa dotore askoa eginez ibili ziren hamabost bat lagun saltoka eta arin-arin. Haur koskorra baino ez zen ho- rietako bat, eta arreta berezia piztu zuen begira gurendean



Vespa duenak neska omen du, eta argiakozentrat egia izan behar du horrek. Kalsan gora eta behera zebiltzan atzo, motor hots bikor askoak eraginez. Bakarren bati neska hantzi egin zitzaion, gainera. J. ARIETA



Zirkoko azeriak hauek oso eskuzabak ziren, gaurkiak-eta banatzen baitzireluden jendartean. L. MONTES



Tiltan-talan-eko arkeologoak, Santa Maria elizan. L. MONTES



Musika zeltiarrak dantzatzen zuten, abil-abil, argiakiz ageri diren neska-mutiek. L. MONTES



Erdi Aroko pertsonaiek multi-laguna bilatu nahi zioten printzesari haren gatzeluan. L. MONTES

arteak. Aurrerago, ondo identi- fikatu zaudenak zirkoko piz- tiak ziren. Domatzailea bera ere kaitola barruan zegoen, eta ez jakin nor zein domatzen zuten. Ondo hezitakoak bazi- ren, behintzat, aurretik pasat- zen zitzaizela gozokiak banat- zen baitzizkielen.

Gonbidatu gabekoak ere na- hi baino gehiago ibusi ditugu. Erturusiako armadako kideak, Espainiako printze-printzesak, hain sentiaritakoak eta tarteko ere ez direnak, militarak. Ho- riei buruz ez gara mintzatuko; alpatu ditugu, baina...

Jatekorik apenas dutenek ere nahi izaten dute Tolosaldeko Inauterietara etorri, eta Trian- guloan ezarri zuten karnaba- lea hainbat eskolek inguru- tan ere baziren gehiago, baina batzuen eta besteen eskaerak arraz ezberdinak ziren. Ni- ta haurrak ez du jatekorik, diru guztia atzoko parrandan gasta- tu muselako, zuten idatzia Kar- toi puska batean, eta eskua

makur-makur eginda limona- toxa eskatzen zuten. Bakale zi- rudiren beste haur batzuen- an, berri horiak: 'Mi me no me da de come, mi pae me pega; una ayudita po labor, Gracia!'

Jateko asko izango zuten, agian, baina bikoteak falia. Erdi Aroko pertsonaiek multi- laguna bilatu nahi zioten prin- zesari haren gatzeluan. Salatu, salatu ziren, baina aurkitu ote zuten edo bere gustukoa zen... Garai bateko moduak ez da- kigu balekoak diren, baina egia da egungoek ere batzutan bakarrik funtzionatzen dutela. Badakizue... Aukeran, Ardo Aro gehiegizko.



KEY-LAN
Sarekoak

Nizama etorb. 11 helia • 48008
Mug: 670 41 79 22
Tel: (fax) 943 62 90 13



Internet, zer eskatu behar du? Web gureak zure zerbitzuak bermatzen ditu?

947 252 999



PATTAR ZEZENA ▶



Ezetz harrapatu. Gazte asko ibili ziren atzoko pattar zezenean. Jendea ere bazegoen eserita, hondar gainean zeudenei begira eta goizean goizko hotzari aurre eginez txarangen musikarekin gorputzak mugituz. Argazkiko gaztea zezenaren hurbil aritu zen. Harrapatuko ote zuen? I. GARCIA



Niri ez! Badaezpada eskuak jarri zituen gazte honek, azkena atera zen zezenaren erasoari aurre egiteko. Tamaina ezberdineko lau hankakoak aritu ziren mozorrotuen atzetik. Hasieran txikiagoak atera zien eta ekitaldiak aurrera egin ahala orduan eta handiagoak plazaratu zituzten. I. GARCIA



Adarre helduz. Bada, ezkerreko argazkiko gaztea harrapatu zuen zezen honek. Baina ez zen bakarria izan, beste batzuen adarrak ere probatu baitzituen. I. GARCIA



Giroa. Jende dezente izan zen bai hondar gainean, bai ikusten, gehienak gaupasa eginda. Lauzpabost txaranga giroa jartzen harmailetan eta bitartean zezenak arriskua sortzen plaza barruan. i.g.

AURPEGI EZAGUNA ▶ MIKEL MARKEZ (MUSIKARIA)

Mozorroen ezkutuan etortzen bada hobe

Gaztetik etortzen da urtero musikaria Inauterietara; begiratza bada, festa barruan segituan sartzen da

INIGO TERRADILLOS

Mikel Markez abeslariarentzat Tolosako Inauteriak galdu ezinezko hitzordu bihurtu dira. Gazte garaietan hartu zuen Tolosara etortzeko ohitura; «Errenteriatik trenez etortzen ginen eta itzuli ere trenez, baina, goizaldera, noski», dio bakarlarriak.

Inauteriak gustatzeaz gain, mozorrotzea ere gustatzen zaio

Mikel Markezi; «mozorroek gure alderdi bat ezkututzen dute eta beste bat agerian utzi, transgesiorako joera izan dugu eta jai mundiala da horretarako», azaltzen du.

Jendeak parte hartzen delako direla bereziak Tolosako Inauteriak dio musikariak; «Gure kasuan edozein trapu jantzita azaldu ohi gara, baina tolosarrek kristoren montajek egiten dituzte, denbora asko

ematen dute jantziak, traman-kuluak, autoak eta abar prestatzen, eta kasu askotan gidoi modukak ere prestatzen dituzte, eta meritua dute horretan».

Mozorroturik etorri ohi da Tolosara. Oso mozorro elaborratuak ez direla izaten, baina jendeak lehen begiratuan ez ezagutzea dela garrantzitsua dio. Mozorroen artean musulmanez jantzita, bizar eta pelukarekin, oiroitzen du bereziki.



Mikel Markez, aurtengo astelenita egunean Tolosan. JAIONE ASTIBIA

Inauterietako egun bat aukeratu beharko balu, berriz, ostirala edo larunbata ez den edozein egun dela ona dio. Aurten Astelenita egunean izan da Markez Tolosan familiarekin eta aisialdi taldekoen dantza

saioekin eta karrozekin gozatzeko aukera izan zuen.

Berak dioen bezala, «Tolosako Inauterietara begiratza bada ere, festaren barruan amaitzen duzu konturatu gabe».



MOZORROAK ▶



Errumaniatik etorritako musikariak, zarata ateratzen. N. LABABURU

Dotore...

HITZAK banakako mozorroen bila irten du kalera; dotore askoak aurkitu ditu

ERREDAKZIOA

Karrozen eta konpartsen lehaketan parte hartzen dutenez gain, asko eta asko dira Inauterietan batera eta bestera ibiltzen diren herritarrak. Bada banakako mozorro horien bila irten du HITZAK kalera, eta dotore askoak aurkitu ditu. Ohiko mozorroak ugari izaten dira urtero Tolosan: piratak, pailazoak, indioak eta bakeroak, era guztietako animaliak... Baina irudimen handikoak ere nonahi aurki daitezke. Haur, gazte

eta heldu... adin guztietako jendea ikusi dute kazeta honetako langileek mozorrotuta. Berdin banaka, bikoteka edo taldeka; eta horietako askok aukeraturako mozorroaren barruan sartuta egin ditu hiru egunak.

Orrialde honetan mozorroen sailkapen txiki bat baino ez da ageri. Izan ere, ezin denak sartu. Beste asko, ordea, HITZAREN web orrialdean topa ditzakezue: www.tolosaldeko-hitza.info. Hala ere, sartu gabe geratu denik izango da, ziur. Hurrengo batean beharko!



Ederra eta piztia, San Frantziskon, maitasuna erakutsiz. I. TERRADILLOS



Herensuge lotsatia. I. TERRADILLOS



Zakurra eta jabea. I. TERRADILLOS



Segalaria, apusturako aurkari bila, desafioa bota ondoren. L. MONTES

VILLABONA ▶ PRESOAK

Aske utziko dute gaur Eneko Gorostidi preso billabonatarra

50.000 euroko bermea ordaintzean atera ahal izango du kalera; ongietorria egingo diote herkideek Villabonan, 20:00ak aldera

IRATXE ETXEBESTE

Aske utziko dute gaur Eneko Gorostidi preso billabonatarra Aranjuezeko (Madril) espetetik. 50.000 euroko fiantza ordaindu bezain laster aterako da, baldintza hori jarri diotelako Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileek kartzelatik iriteteko. Atzo jakinarazi zioten hori Gorostidiren senitartekoei Espainiako Auzitegi Nazionaletik, baina ordurako Espainiako Auzitegia itxita zenez, ezin izan zuten atzo bertan bermea ordaintzeko bildutako dirua aurkeztu. Hala ere, albistearen berri izan bezain laster abiatu ziren Gorostidiren senitartekoak Madril aldera, gaur, ahalik eta azkarren fiantza ordaindu, eta lehenbailehen, orain arte pre-

so izandakoa etxera ekartzeko. Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduko eta ezker abertzaleko kideek ongietorria egingo diote haien herkideari herrira iristerakoan. Antolazaleek iragarri dute Madriletik itzultitakoan egingo dutela ekitaldia: 20:00ak aldera.

Baltasar Garzon epailearen aginduz, 2003ko azaroaren 18an atxilotu zuen Espainiako polizia Eneko Gorostidi Villabonan, «ETA erakunde armatua berregituratzea» leporatuta. 13:30ak aldera atzeman zuten, lanetik atera zenean, eta lekukoek esandakoaren arabera, «eraman egin zuten auto batean». Bizpahiru ordu geroago joan ziren bere etxea miaztera, eta horretarako «bueltan ekarri zuten» Gorostidi. Hego

Euskal Herrian, beste 11 lagun ere atxilotu zituzten egun berean, bi egun lehenago hasitako operazioaren harira. Orduan Espainiako Barne Ministro zena, Angel Acebesek zioen atxilotu guztiek «ETAREN talde berri bat sortu nahi» zutela, eta ETAN sartzeko «urratsa emana» zutela dagoeneko.

Operazio hartan atxilotutako lagun batzuk «ETAREN inguruko erakunde ilegalizatuetakokide» zirela adierazi zuen Acebesek polizi operazioa burutu eta gutxira. Amasa-Villabonako Abertzaleak herri plataformako laugarren hautetsi gisa aurkeztu zen Gorostidi 2003ko maiatzaren 25eko hauteskundeetan, baina plataforma legez kanpo utzi zuten, ez zen azkenean zinegotzi irten. Bestal-



Eneko Gorostidi, Villabonan. HITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ Tolargi: 65 00 16
 - ▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
 - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona.** Anbulat.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Leitza autobus: 948 221015
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarr Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz. Amaroiz auzoa 9 (Tolosa). 943 67 51 18. Larraia. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoeta. 687 41 00 22
anoeta@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 9a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasketa, Adura, Abotzu, Alege, Alkiza, Altoa, Ameritza, Anorta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Iturri, Larrail, Leizola, Leizola, Oñena, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza,
Kultura Saila

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Saila

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

9

hotzena

6

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

943

ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak, harpide egiteko...)

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Bihar osteguna, hilak 10, Anoetarrok Auzolanean herri plataformaren ohiko batzarra 19:30ean udaletxean.

Ibarra. Katxalin, bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak eta Ibarra Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamenduak bularraren minbizia goiz antzemateari buruzko hitzaldia antolatuta du bihar 16:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Hitzaldia: *Europar itun konstituzionala eta egoera politikoa.* Antton Karrera Ezker Batua-Berdeak-en parlamentari eta Gipuzkoako koordinatzailea eta Oskar Matute EB-Berdeak-en parlamentariaren eskutik. Bihar osteguna 19:00etan Kultur Etxean.

Tolosa. Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak Zikloetarako azterketa prestaketa ikastaroa antolatuta du otsailaren 17tik hasita, astelehenetik ostegunera 18:00etatik 22etara. Europako fondo sozialaren laguntza du, doan da. Izen-ematea: 943 65 11 47.


Tolosa. KZguneak Internet ikastaro hauek antolatuta ditu otsailerako: 21etik 25era 9:00etatik 13:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea bertan.

Orexa. Tutorearen bisita izango da bihar 9:00etatik 13:00etara. Kontsumitzailea sarean izango da gaia.

ZINE-KLUBA

Tolosa. Agnes Jaoui zuzendariaren *Como una imagen* filma eskainiko du bihar 21:30ean Leidor zinemari.

GORA ETA BEHERA ▶ IMANOL GARCIA



Garbitzaileen lan txukuna goizero

Milaka lagun etorri dira Inauterietara, festa giroa, ondo pasatzera... Baina hainbeste jende biltzen den tokietan, eta are gehiago juergara etortzean, zikinkeria ederki pilatzen da. Horregatik, eskertzekoa da goizero garbiketa lanetan jardun dutenek egindako lana. Goizero, karroza eta konpartsa irteera aurretik, kaleak ureztatu eta errazarekin ondo pasatu dituzte eta bere zikin-mozorroa kendu diote. Halere, kalean ibiltzen garenok gure aldetik ere ahal dugun gutxiena zikintzen lagundu dezakegula gogoratzea ez da soberan izango. i.i.

Ezin da festarik egin pakean?

Atzo goizean ohiko zikinkeriaz gain garbitzaileek beste zerbait aurkitu zuten lurrian: kristalak. Bai, dirudienek batzuek ezin dute festarik egin txikiziorren bat burutu gabe. Epaitegiko plazako hainbat autotako kristalak hautsi dituzte —argazkikoa, esaterako— eta Solana, Leitza eta Korreo kaleko denda batzuetako erakusleihoak ere apurtu dituzte. Astelenita gauean ohi baino txikizio gehiago egiten omen dituzte eta aurten ez da salbuespenik izan, tamalez. Ea hurrengo Inauterietan ez diren errepikatzen festa *bizitzeko* modu hauek. I. GARCIA

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maitane Urkola

(Anoeta). Gaur 8 urte.
Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN

Gorka Ugartemendia Urbieto

(Alkiza). Gaur 2 urte. Larraul eta Alkizako familien partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!